

Funtsezko bazkideak

Gure enpresa egoera onean mantendu dadin, ezinbestekoa iruditzen zaigu jarraian azaltzen diren hiru faktore hauek bermatzea.

Alde batetik, gure enpresari hazten laguntzeko enpresa ezberdinetako inbertitzaileekin harremanak eta akordio ekonomikoak egingo genituzke. Aipatutakoa gauzatzeko, beharrezkoa dugu Sagutela, Fibotoia eta Polikledesign enpresekin kontaktuan jartzea inbertsioak egin ahal izateko.

Sagutela, kolore, proportzio, neurri, estanpatu eta mota ezberdinetako oihalak ekoizten dituen enpresa da. Honi esker, gure jantziak sortu eta aniztasun handiko arropak gauzatu ditzagun lagunduko digu. Bestalde, esan, gure jantziak ez dutela generorik, eta gure helburua unisex erako jantziengan apustua egitea da gizarte anitz batean sinesten dugulako. Azken finean, ez baitugu nahi gure ondorengoek errepresiopean bizitzerik.

Fibotoia enpresa, apainketaz arduratzen da. Honek, botoiak, sakelak eta era askotariko apaingarriak ekoizten ditu. Honi esker, gure jantzietan hainbat material lortu ditzazkegu. Gainera, gu bezalako enpresa batentzat lagungarria izan daiteke horrelako enpresa batekin lan egitea eta jakinduriak partekatzea; gizarte garaikideko kideoi asko gustatzen zaizkigulako gauza berritzaileekin lan egitea eta harekin tendentzia bat nabarmentzea gauza berriak sortuz.

Azkenik, Polikledesign enpresa, diseinu aholkularitza zerbitzua emateaz arduratzen da. Bertan, jantzien, oinetakoen, eta beste hainbat jantziren planoak eta proposamenak egiten dizkiete euren bezeroei ondoren haiek ekoitz ditzaten. Honi esker, gure produktuak diseinu moderno eta berritzaile bat izatea lortuko dugu.

Bestalde, Espainia mailako hainbat saltokiekin hitzarmenak sinatuko ditugu gure produktuak bertan sal ditzaten eta gure produktuen izankizuna espainiar gizarteari helarazteko. Adibidez, Sevilla, Madril, Bartzelona, Valladolid, Donostia, Bilbo, etab. Denda hauetan produktuak zertxobait garestiago salduko ditugu, kontuan hartu behar baitugu garraioetako kostua eta kostu komertzialak, baina uste dugu ezagutzara zabaltzeko ideia ona izan daitekeela.